



ARTZAINNTZA BIZIMODU

Carmen Perez de Albeniz artzain arabarra omenduko dute

Katalunia, Arabatik begira

Igandeko hauteskundeak eztabaidagai

Anfibioentzako urmael berriak, Zigoitian

Bederatzi putzu egingo dituzte Oketa inguruan

ZATOK EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA



2016 ARTE



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero,
hileko 45,9 €-an sollik (BEZa barne)

**Kontratatu
webgunean,
saltokietan edo
1717an.**

Zenbat eta lehenago
kontratatu, lehenago
hasiko zara aurretzen.

euskaltel

Sustopen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alta berriei aplikatuko zaie. 12 hilabete irauteko konpromisoa. Ikus gainerako baldintzak www.euskaltel.com helbidean.



Azaleko argazkia:
Itsaso Estarrona

Alea

31

■ zk.

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu, harpidetu zaitez. 50 euroren truke, 44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus



4



8



17



24

- 4 Independentzia, Kataluniako hautestontzian.
- 8 Prz. de Albeniz: "Otsoari baino, txakurrei izan diet beldurra".
- 12 Iritzia: Itziar Rekalde, Edu Zelaieta, Itsasergia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: Errota auzoa barrutik eraberrituko dute.
- 16 Aiaraaldea: otsoa, Amurrioko etxean.
- 17 Gorbeialdea: hiru igel mota babesteko urmaelak abian.
- 18 Lautada: Harresi aretoan, denboraldi berria prest.
- 19 Añana: manifestazioa, Aernnovako kaleratzeak salatzen.
- 20 Mendialdea: perretxiko bilketari, mugak.
- 21 Trebiñu: Axartetik Gasteizko katedral zaharrera ibilbidea.
- 22 Arabako Errioxa: bisoi europarra babesteko lanean.

HAMAIIKA SALTSA

- 24 Uxue Diaz de Cerio: "Familia txiki bat da bertso eskola".
- 26 Gasteiz: Erdi Aroko Azoka hartuko du asteburuan.
- 27 Zozketak.
- 28 Postontzia.
- 29 Denbora-pasa.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



www.aiaraaldea.eus

hirinet



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Itziar Rekalde, Edu Zelaieta, Iker Etxaniz eta Arabako Bertsozale Elkartea.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

'Punt i a part'

Independentziari buruz erabakitzeke izan daitekeen bide bakarrenetakoari helduta, hauteskundeak dituzte igandean Katalunian; Araban bizi diren Kataluniako hainbat lagunekin eta han diren arabarrekin hitz egin du ALEA-k. **A AMENABAR** GASTEIZ

Datorren igandetik aurrera ezer ez da berdina izango. Norabide batean edo bestean egin, hilaren 27ko Kataluniako hauteskundeak "mugarri" izango direla uste dute ALEA-rekin hitz egin duten katalan eta arabarrek. Egindako apustua handia da, indepentiaren aldeko eta kontrako indarrak zenbatuko dituztelako mundu guztiaren begiradapean.

Momentu "historikoa" da hau Cira Cresporentzat (Bartzelona, 1980), igandetik aurrera zer gertatuko den ez dakien arren. "Uste dut inork ez duela argi, bide berri bat delako, modu honetan inork egin ez duena, baina oso argi dut mugarrira izango dela Espainia eta Kataluniaren arteko harremanetan". Sei urte daramatza Gasteizen Crespok, eta Kataluniako prozesua urrundik jarraitu duen arren, "gertutik" bizi duela dio: "Orain arte distantzia batekin jarraitu dut, baina egia da orain urduri nagoela, serio doalako hau". Haren gertukoak ere "momentu historikoa" bizitzen ari direla kontziente direla aipatu du, sentsibiltate politiko askotarikoak tartean, eta euren artean ere "talkak" eta "urdukitasunak" sortu direla. Egoera honek gizartearen eragin duen uesteko "zatiketaren" aurrean, herri-tarren eguneroko harremanetan

"Sentsazioa dut Espainiako estatuan ez direla oraindik konturatu noraino irits daitekeen hau"

CIRA CRESPO BARTZELONA

"Zeinek esango digu ustelkeria dagoela? Politikari ustel kuadrilla batek?"

FRANCESC RIERA BALSARENY

"Independentziarekiko en gaiatuta dagoen jendea hainbestekoa ez dela iruditzen zait"

OIER AZKARRAGA ZUIA

halakorik ez dela uste du Crespok, baina bai, ordea, sektore batzuk beste batzuk baino "haserreago" eta "deserosoago" daudela. "Eta ulertzekoa da. *Statu quo*-arekin kritiko izan garenok hainbat urtez sentitu gara deseroso; badirudi deserosotasuna aldeztu dela". Etxean

bertan, amarekin ez du politikaz hitz egiten, hura ere "haserre" dagoelako hauteskunde hauekin.

Cresporen ustez, "aldaketarako motore" izango dira hauteskunde hauek. "Mundu guztia oso kontziente da Pandora kutxa bat ireki dela eta aukera bat dela, ez bakarrik katalanentzat baizik estatuko beste herri batzuentzat". Euskal Herriko prozesuarekin alderatuta, beste ezaugarri batzuk eta beste "zama" bat dauka bertakoak, baina baliagarri izango da Kataluniak hartutako bidea. "Hauteskunde hauek interesgarriak iruditzen zaizkit aukera emango dutelako bisibilizatzeko zeintzuk diren desobedientziaren aukera errealak, noraino hel gaitezkeen eta nola alda daitezkeen gauzak". Identitate katalanaz haragoko afera dela uste du, estatuen herri antolaketari buruzkoa ere bada, eta beraz Katalunia eta Euskal Herriarentzako "aukerak" parez pare joango direla.

Igandean izan daitezkeen ezustekoak ezusteko, ondoren ere "zuhur" jokatu behar dela uste du. "Dena den, sentsazioa dut estatuan ez direla oraindik enteratu noraino irits daitekeen hau".

Francesc Riera Isernek (Balsareny, 1955) ere Arabatik jarraituko ditu hauteskundeak, Maurgatik, "indarrez" eta "ikusmiraz". Haren



**Deme Martin,
ikurrinarekin, Diada
egunean.**

ALEA

ustez, ezin daiteke esan gizartean "zatiketa" dagoenik. "Zatiketaz hitz egitea erasoen beste parte bat da, orain joango diren enpresen inguruan hitz egiten dute, edota erretirorik gabe zeinen gaizki biziko garen errepikatzen dute, leku guztietatik botako gaituztela...". Haren arabera, ez dago liskarrik hauteskundeetan inguruan eta "zatiketaz" ari direnek ez dute Katalunia ezagutzen edo "benetako zatiketa" egitearen aldekoak dira: "Hain zuzen, prozesu honek duen ezaugarrietako bat eta gehien zaindu denetako bat integratzailea dela da".

Azken asteetan Convergenciaren kontra agertutako ustezko iruzur aferen inguruan, bestalde, hauteskundeetan pisurik izango ez dutela uste du: "Jakina badakigula %3arena egin dela eta iruzur kasuak izan direla, ez gara leloak, bertan bizi gara... baina zeinek esango digu ustelkeria dagoela? Politikari ustel kuadrilla batek? Euren hatzapparretatik ihes egin nahi dugunean?".



**Marta Mediavilla,
Bartzelonan.**

ALEA

Rieraren ustez, euskal herritarrek badute zer ikasi Kataluniako prozesuaz, "bata eta bestea alderatu ezin daitezkeen arren". "Batak eta besteak ikasi behar dute euren prozesua izan dezaketela herritarrek hala nahi badute; uste baino herrialde gehiago independizatu dira Europan XX. mende hasieratik, bakoitza bere eredu eta momentuan".

Herritarrak protagonista

Azken urteetan Bartzelonan bizi izan den Deme Martinek (Gasteiz, 1965) ere "herritarrak" protagonista izatearen garrantzia nabarmendu du. "Eta horretan alde nabaria dago Euskal Herriarekin, han prozesuak zama politiko gehiegizkoa duelako; Kataluniak hori gainditu duela uste dut, herritarren mugimendua bilakatu da...ideologia politikoez haragoko mugimendua da". Haren ustez, ideologia askotariko lagunek egin dute bat prozesuan, klase sozial eta adin askotariko jendea. "Eta horren erakusle izan zen irailaren 11ko Diada, pankarta edo irudi politikorik gabeko olatu erraldoia". Halaber, Euskal Herriaren aldetik prozesuarekiko "inplikazio gehiago" faltan bota duela nabarmendu du Martinek: "Uste dut babes gehiago, zarata gehiago faltan bota dutela katalanek eurek ere".

Oier Azkarragaren (Zuia, 1990) ustez ere "kalea" da Kataluniako prozesuaren protagonista nagusia eta herritarrek bultzatuta egin du aurrera. "Convergenciak pauso hori eman baldin badu ez da benetan horretan sinisten duelako, beste aukerarik ez duelako baizik, herri mugimenduak bultzatu duelako aukera hori hartzera". Ikasketek bultzatuta, Bartzelonatik bertatik jarraitzen ari da hauteskondeak Azkarraga, CUP babesten duten mugimenduetatik gertu eta aurreko batzuetan baino "apalago" nabaritu du giroa. "Konprometitutako jendearen artean gaia inportantea da, baina kalean giroa inoiz baino apalagoa ikusten dut, inoiz baino bandera gutxiago...". Kanpainako hainbat ekitalditan izan da, eta prozesuarekin bat egiten duten herritarrak uste baino "gutxiago" direla uste du: "Hiru milioi herritarreko hiri batean hiru mila lagun bildu ginen igande, eta hori Euskal Herrian ez

"Ideologia politikoez eta alderdiez haragoko mugimendua da Katalunian bizi duguna"

DEME MARTIN GASTEIZ

"Zalantza betetako giroa sumatzen da egun hauetan, ikuspuntu politiko askotariko eztabaidekin"

MARTA MEDIAVILLA GASTEIZ

litzateke jendetza; prozesuarekiko eta independentziarekiko engaiatuta dagoen jendea ez dela hainbestekoa iruditzen zait". Une batzuetan jendetza biltzeko gaitasuna izan arren, kalean hainbesteko indarrik ez dela nabari dio.

Bestalde, Convergenciaren kontrako ustelkeria salaketek kanpainan izan duten "oihartzun eskasak" harritu duela aitortu du Azkarragak: "Ezkutatuta dutela iruditzen zait, baita ezkerreko mugimendutik ere; uste nuen erabil zezaketela, baina nahiago izan dute tapatu".

Iritzi berekoa da Marta Mediavilla ere (Gasteiz, 1986), ustelkeria kasuak hasieran eztabaidarako gai izan zituzten arren, "arin" igaro baitira: "Politikaren inguruko beste iruzur askorekin gertatu den bezala, honetan ere gizarteak beste leku batera begiratu duela ematen du". Bartzelona du lantoki azken urtean Mediavillak eta bertatik bertara jarraitu du hauteskunde kanpaina ere, herritarren artean dagoen "nolabaiteko zatiketa" horren lekuko: "Hemen bizi naizenetik eta independentziaren aldarrikapen aktiboa hasi denetik somatzen dut halako zatiketa bat; badirudi alde batean edo bestean posizionatzeko beharra dagoela". Eguneroko eztabaidagai da harentzat lantokian, bai lankide eta lagunen artean, aurrekoetan bizi izan zuen moduan. "Zalantza betetako giroa somatzen da egun hauetan, ikuspuntu politiko ezberdin ugaritako eztabaidekin". Ezinbestean, "herritarrek" izan duten protagonismoa ere nabarmendu du: "Izugarria da herritarren mobilizazioagatik eta egin den zabalkunde mediatikoagatik Kataluniak lortu duen ahotsa; edozein aldarrikapen sozialerako ere baliagarri da hori".

Katalunia zein Arabatik, norabidea argitzeko zain dira denak.



Oier Azkarraga gazte zuirra, Bartzelonan. | ALEA



Bosgarren urtez, milaka lagun atera ziren Bartzelonan Diadaren egunean, joan den irailaren 11n. | ALEA

TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL
VITORIA-GASTEIZ


VITORIA-GASTEIZKO
NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA

1975 - 2015



EDIZIOA
IKUSLEA IKUSGAI

ANTZERKIA
ERE EUSKARAZ



KREDITUA, urriak 21 •
TANTTAKA TEATROA
MUXUA - urriak 29 •
TANTTAKA TEATROA
ETXEKOAK - azaroak 4 •
ARTEDRAMA 7 HUTS TEATROA

ABONAMENDUA: 29 EURO

BABESLEAK



+ info: www.principalantzokia.org



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

CARMEN PEREZ DE ALBENIZ

ARTZAIN OHIA Hamar urte zituenetik artzain aritu da Arabako Lautadan Carmen Perez de Albeniz (Gabiria –Gipuzkoa– 1945); "Gauzak asko aldatu dira" negu gorrietan ardiak mendiko etxoletan eskuz jezten zituen garaitik. **ITSASO ESTARRONA** MUNAIN

"Neguak pasatzera, Arabatik Gipuzkoara joaten ginen lehen"

Zortzi aste baino ez zituen gurasoek lehen aldiz Arabako Munaineko tontorrera igo zutenean, bertako etxolan ardiak jezteko. Ordutik bizitza transhumantea egin zuen Carmen Perez de Albeniz artzain arabarrak, semeak eskolara joan behar izan ziren arte. "Udaberriak Legaireko zelaian edo Munaineko tontorrean pasatzen genituen, mendiko txaboletan, eta neguan, aldiz, Gipuzkoako larreetara joaten ginen; etxea Agurainen genuen, baina zapaldu ere ez genuen egiten". Puerto de Munain izeneko bere gaztekin "lehiaketa guztiak" irabazi dituelako harro, igandean omenaldia egingo diote berari eta beste bi artzaini Amurrioko Artzain egunean, ofizioari eskainitako bizitza oso bat aitortzeko.

Duela bost urte erretiratu zinen. Otsoaren beldur zara oraindik?

Ez diot inoiz otsoari beldurrik izan, hemen inguruan ez delako otsorik egon. Tira, bat bota zuten Entziako mendatera duela hogeita bost urte...

Nork bota zuen?

Hori da jakin beharko genukeena! Edonola ere, Entziako mendate inguruko artzainok ganadu guztia mendetik herrira jaitsi ohi genuen neguan eta, beraz, otsoa esku hutsik geratzen zen. Urbasara joan zen orduan, eta han eraso asko egin zituen. Bertako abeltzainek uxaldiak antolatzen zituztenean, laguntzera joan ohi

ziren Agurain inguruko herritarrek. Bizpahiru urte ondoren akabatu zuten. Hala ere, gero berriro saiatu dira hona otsoa ekartzen...

Ez dirudi otsoa berreskuratzeko ahaleginekin oso konforme zaudenik...

Ez dut ulertzen zergatik tematzen diren. Otsoa egon izan den tokietan, otsozuloak egon ohi dira, baina Entzian eta Urbasan ez dago halakorik. Egon izan zen otso bat, nire aita gaztea zenean: zepo bat jarri zioten eta tranpan erori zen, baina hiru hanketan ihes egitea lortu zuen. Hori da entzun dudana istorio bakkarra.

Zer beste 'otsori' egin diozu aurre artzain bezala?

Txakurrei. Ez txakur basatiei, baizik eta ehiztari, mendizale eta igandezaleen txakurrei.

Zer dela eta?

Koska egiten diete ardiei, hiltzeraino batzutan. Datoren arabera, abortatu egiten dute ere. Otsoak baino, txakurrak izan dira beldurgarri niretzat.

Zaila da artzain batek duen ardi kopurua aitortzea, baina zuk zenbat izan dituzu? Laurehun eta hogeï, gehienez...

Ardien artean kutunik izaten al zenuen?

Hori beti! Senarrak, semeak eta hirurok eskuz jezten genituenean, gutako bakoitzak gure gogokoenak erasten genituen.

Noiz jarri zinen lehen aldiz artalde baten buruan?

Hamar urte nituenean.

Nola gogoratzen duzu?

Oso gaizki. Esperientzia txarra izan zen.

Ez zenuen nahi, ala?

Ez, ez da hori. Agurainetik ateratzeko desiratzen nengoan! Garai hartan, neguan ez genituen

"Ehun pezeta eta bildots baten truke-edo alokatzen genituen Ezkio-Itsaso inguruko belardiak"

"Otsoei baino, ehiztari, mendizale eta igandezaleen txakurrei izan diet nik beldurra artzain bezala"

ardiak hemengo zelaietara ateratzen, elurragatik bazkatzeko zelairik ez zegoelako. Hartara, Arabatik Gipuzkoara joaten ginen neguro, baserri-tarrek ehun pezeta eta bildots baten truke-edo alokatzen zizkiguten zelaietara. Gipuzkoara joateko bezperatan, ardiak Zalduondoko mendian gora bota eta Agurainera itzultzen ginen lotara, abereek gauez Gipuzkoarako bidea har zezaten, bazekitelako bere kabuz San Adriango larreetaraino igotzen, Aizkorrin. Behin, nik hamar

**Ahari batekin,
Lautadako
Munain herrian.**

ITSASO ESTARRONA

Artzain eguna Amurrión

IGANDEA 27

10:00-14:30 Ardi latxa eta gazta lehiaketa; Arabako artalde eta ardi onenen erakusketa; baserriko produktuak; artisautza-postuak; etnografia eta makineria erakusketak; txistulariak eta musika banda.

11:30 Artzain omenduei ongietorria (Carmen Perez de Albeniz –Munain–, Jose Ramon Martinez Elejalde –Agiñaga– eta Jose Meabe Eguiluz –Goiuri–).

12:00 Gazta-egite erakustaldia.

12:30 Ilea mozteko tekniken erakustaldia.

12:30 Ardi latxaren produktu berrien dastaketa (Ardiki eta Gaztazaharra).

13:30 Arabako artzainari omenaldia eta sari banaketa.

15:00 Herri-bazkaria.

18:00 Artzain txakurren lehiaketa.

urte nituela, aitag mutiko bat hartu zuen artzain zereginetan laguntzeko, baina gaizki pasa zuen hark Agurainetik Zalduondora bidean, eta ez zuen jarraitu nahi izan.

Eta zuri egokitu zitzaizun lana orduan?

Hala da. Aitak behor beltza hartu zuen eta nik kanela-kolorekoa. San Adrianera igo, eta sekulako elurtea bota zuen; ardiak ezin ziren bestaldera pasa. Han aritu ginen, egun osoan lan eta lan. Negar egiteko aukerarik ere ez nuen izan, ardiek ihes egiten zidatelako.

Nola konpondu zenuten hura?

Lautadatik Gipuzkoara joaten ginean, Zegamako baserri batean pasatzen genuen gaua. Artaldea handik ikustean, baserritarra herri-rik mendira igo zen laguntzera. Ondoren, Zegama atzean utzi eta, Segura eta Zerain pasata, Ezkio-Itsasoraino iritsi ginen. Han egoten ginen neguan. Berrogeita zortzi urtez joan zen nire aita baserri berera.

Gipuzkoarrekin euskaraz aritzen zineten?

Nire ama euskalduna zen, eta txikitik euskaraz egin zidan. Gauza da batzutan, neguan, Itsaso-Alegiko eskolara joaten nintzela, eta bertan, mila aldiz behartu ninduten idazte-



ra: "Ez duzu inoiz gehiago euskaraz hitz egingo". Eta ez nuen egin. Gero, baserritarrek euskaraz egiten zidatenean, gazteleraz erantzuten nien eta "belarrimotza" deitzen zidaten, kar kar. Orain ez dakit euskaraz; senarrak, ordea, bai. Gipuzkoatik Arabara etorri zen lanera oso gaz-

tetan, baina hari gazteleraz baino ez egiteko agindu ziguten, ikas zezan. **Noiz utzi zenioten Gipuzkoara joateari?** Semeak bizpahiru urte bete zituen arte joan ginen Gipuzkoara, eta baita Andoinera eta Larraonara, Nafarroan. Gero asko aldatu zen bizitza. Munainen etxea erosi genuen

70. hamarkadan, eta bertan geratu ginen, umeak eskolara eramatea derrigorrezko izaten hasi zelako.

Artzaina eta emakumea. Zaila?

Ez! Artzain emakume asko eta asko egon dira. Nik ez diot gizon bati ere inbidiarik izan.

Nola izan zen ama eta artzaina izatea?

Nirekin eramaten nituen umeak edonora. Mendiko etxoletan, nire ohera ekarri behar izaten nituen, hotzez negarrez zeudelako.

"Mendateko itxiturak ireki beharko lituzkete, eta kamioien joan-etorria ordenatu"

Gero jezte-makina erosi zenuten...

Bai. Asko aldatu zen dena.

Nola aldatu da artzain ofizioa?

Gero eta artzain gutxiago igotzen da mendira ardiak jeztera, gehienek jezte-makinak dituztelako herrian; hortaz, herri ondoko zelaietan bazkatzen dute abereek. Erditu ez dutenak baino ez dira mendira igotzen, ez zaielako jetzi behar.

Abereak elikatzeko modua ere aldatu da?

Zerbait kontatuko dizut: gaztea nintzenean, Bizkaian erosten genituen ardiak udaberriro, nire aita ez zuelako bildots-emerik. Bada: ez zekiten askatik alea jaten, zelaira zeudelako ohituak.

Eta ofizioaz gain... nola aldatu da bizitza Arabako Lautadan?



Legairen hogeia artzain elkartzen ginen lehen, mendian ibili ohi ginenak. Orain, hiru baino ez dira igotzen. Gazte gutxi dago ofizioan: Galarretakoa eta nire semea izango dira gazteenetakoa, eta 50 urte dituzte; Araiakoak ere gazteak dira, 40 urtetik gorakoak nolana ere. Aldundiak gazteei lagundu beharko lieke, baina ez diezaiera esku batekin eman eta lau eskurekin kendu. Bestela, joan daitezke Arantzazuko artzain eskolara, baina ez badute baliabiderik edo familiako artalde-rik... Oso artzain eta abeltzain gutxi daude gaur egun, eta dauden asko "mistoak" dira: fabrikari lan egin

ondoren, abeltzain direnak. Horiek dira kalte gehien egin digutena, abereetatik bizi garenok bezainbeste eskubide dituztelako mendatean. **Zer eskatuko zenieke instituzioei?** Entziako mendateko itxituretako asko irekitzeko. Batzuetan, basurdeak ere ez dira pasatzen, hain daude zikin. Pagoak hazteko eta abar itxi zituzten... baina beitu, hemen ahuntzak kendu zizkiguten, haien esanetan zuhaitzak jaten zituztelako, eta orain orkatzak botatzea okurritu zaie, lehen ahuntzek jaten zituzten sasiak jan ditzaten. Honezkeror, ordea, ezin dira mendiak zeharkatu. Beste zerbait eskatuko nieke ere:

mendiko egurra banatzen dutenean, kamioien joan-etorria ordenatu dezaten, egun zehatz batzuetan zuhaitzak bota eta beste batzuetan egurra ateratzeko. Bestela, hainbeste kamioi eta motozerrek kalte handiak egiten dituzte mendian. Dena apurtzen dute. Gero, itxitura bat egiten dute, ezertarako balio ez duena: ez zuhaitzentzat, ez abereentzat ere.

Abeltzainei gehiago galdetu beharko litzaizukeela iruditzen zaizu?

Noski, eta haiek bizi dezatela esperientzia. Eskerrak otsoa bota nahi zigun jauntxo horrek alde egin zuen.

INTERNETEN: HIRINET.NET



Aldabe Plazatxoa, 4 GASTEIZ
www.salabaratz.com



**URTEKO FORMAKUNTZA
HURRENGO ASTEAN
HASIKO DA**

Urtean zehar egongo diren klaseak 28an hasiko dira: Dantza garaikidea, gorputz adierazpena, yoga, tango, capoeira...

Anima zaitetz!

**23ASTEAZKENA 11:00
SOLA SALTIA**

Macarena Recuerekin eta bere lanari buruz solasalditxo bat eukiko dugu bizkoko goxoak dastatzeko bitartean. Horretaz gain, bere ibilbidean eragina izan dituzten artistei buruz ikusentzuekiko aurkezpen bat egingo dugu

DOAN



**26 LARUNBATA 20:00
DANTZA MARATOIA**

Gasteizko 1. Dantza Maratoia honetan, gorputzak iraun arte, dantzatzera gonbidatzen zaitugu. 20:00tan hasten da eta han jarraituko dugu azkenengo bi gorputzak erori arte.

izen emateak: 5€

alerretako dirua InTecto festivalaren antolakuntzarentzat izango da eta bi irabazleek Festivala ikusteko bonu bat irabaziko dute. Azaroaren 27-29 bitartean izango dena



ITZIAR REKALDE
IPUIN KONTALARIA



Esperantzaren krabelinak

Behinola, oraindik zakarrontzi bereizgarriak ekologisten ametsak besterik ez zirenean eta politikoen eztabaidarik gabe zabor poltsak atari ondoan uzten genituenean, Sevillako kale batean emakume ilegorri xume bat, hirurogeita hamar urtetik gorakoa, kontenedore baten aurrean lau zaildun eskailera tolesgarri

batean igota ikusi nuen.

"Objektu eder eta errepika ezina bilakatzen zuen edozer"

Latexeko eskularru horian gordetako eskua zulotik sartu eta denbora batez ontziaren barnekoak astindu ostean, plastikozko krabelinez eta garo aleaz eginiko lore sorta atera

zuen, ingurua arakatu zuen, begiratu ninduen eta buruko keinu batez gerturatzeko gonbita egin zidan. Ni hurbildu nintzen eta berak sasi lore haiek garbitu ondoren, altxorrik preziatuena izango balira bezala eskaini zizkidan irribarre hunkigarritz hornituta.

Eskailera, eskularruak, belaki xaboiduna eta galdara hartuta ateratzen zen emakume hura etxetik goizero arkeologo baten antzera pasioz beterik, gure garaiko hondakinen "mendi sakratuak" eskainiko zion aurkikuntza nolakoa izango zen jakiteko grinaz. Gauza bakar bat egun bakoitzeko: panpina burugabea, gurpilak falta dituen kamioia, oskolez egindako kutxatxoa, oihal zati bat, guardasol baten ziri umezurtz apurtuak...

Munduko samurtasun guztia bere eskuetan, begietan eta ezpainetan biltzen zituenenez, objektu eder eta errepika ezina bilakatzen zuen edozer. Ez zuen berarentzako ezer gordetzen. Inguruan suertatzen zen begirada garbidun edonori egiten zion esperantzaz estalitako dohaintza paregabea Sevillako sazerdotesa hark.

EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA



Iteubea

Urtean behin joaten zara Jundizera Ibilgailuaren Azterketa Teknikoa egitera; kotxearen iteubea pasatzera, alegia. Urteroko eginkizuna izanagatik ere, beti duda egiten duzu nondik eta nola ailegatu lehenago azterketaren lekura. Gaurkoan ere, ustez denbora kalkulatu zenuen arren, 20

minutu geroago agertu zara Internetez lortutako hitzordura. Iaz bezalatsu.

"Pertsonon iritzi motelek ere iteubea pasatu beharko lukete. Legez"

Berandutxo zabiltzala jakitun, azkar ibili nahi izan duzu bulegoan, bertan paperak

aurkeztu eta ordaintzeko orduan, tailerren aldera joan aurretik. Siriako errefuxiatuen gaia komentatzen ari dira bulegariak ozen samar. Zure ondoan dauden bi pertsonak ere berretsi dute bulegariaren artean nagusitzen hasia den aburua: ez da ulergarria gobernuak errefuxiatuei lagundu nahi izatea hemengo jende asko langabe dagoen bitartean. "Lehenbizi, gu; eta gero, laguntzeko aukerarik baldin badago, kanpokoak".

Saminaren eta suminaren arteko sentsazioa eragin dizu bulegoan ikusitakoak. Ondoren, tailerrean sartu eta mekanikariak esan dizun lehen esaldia sastako moduko bat izan da: "Mesedez, mugitu autoa errefuxiatuak Euskadira heldu baino lehen". Mihia lodituta eta barrera aztoratuta egin dituzu ondoko minutu luzeak, azterketa amaitu arte. Jundizetik abiatzean, zeure egonezinari baltsamo pixka bat emate aldera segur aski, proposamen berri bat bururatu zaizu: pertsonon iritzi motelek eta jokamolde soraioek ere iteubea pasatu beharra eskatzea. Legez.

ZEREN ZAIN? ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Marotoren ezkontza

Javier Maroto Gasteizko alkate ohiaren ezkontzak hizkimizki arrosak eraman ditu sare sozialen aldarera, baita sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei buruzko eztabaida politikoa ere. **ITSASO ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ

**Rikardo Arregi** @rikarregi

Izan dudun amesgaiztoa. Rajoy it's raining men dantzaten Marotoren ezkontzan.

**Oihan Txabarri** @oihantxabarri

Hogei errefuxiatu siriar Marotoren ezkontzan.

**Pilon** @pmendibil

Maroto ezkondu da: zilegi da beste batzuen urteetako borrokari esker lorturiko eskubideen kontra aritu direnek eskubide horiek izatea?

**Jon Agirre** @JAgirrelztueta

Behingoz esandakoarekin %100 ados Marotorekin. Iskanbilak ez dauka zentzurik. Arrosa koloreko kazetaritza hutsa.

**Amaia Rodriguez** @AmaiaRo4

Rajoy Marotoren ezkontzara joatekoa dela eta, zera esan nahi nuke: ¡qué moderno, chica!

**Edu Lartanguren** @edulartanguren

Marotoren ezkontzan Benito Lertxundi jarriko dute? Gozategi?

GUTUNAK

Siberiar KREAZko zirkulu itxia

MANEX AGIRRE

GASTEIZ.

Bada Aramaion, gure herrian, zentral hidroelektriko txiki bat, Eguzkierripa auzoaren magalean, Goikoerrotal aldera oinez joanda, errekaaren ondoan. Sasiak janda eta erdi jausita dago, bai baitira hamarkada batzuk geldit dagoela, beste bide batzuetatik ekartzen denez argindarra herrira. Hondakin urbanistikoa bat. Inguruko baserrietakoek begiratu egingo diote, ikusi gabe, paisaiaren apendiz bat gehiago bihurtu baita. Ondotik pasatzen naizen bakoitzean, ordea, gizarajoa ni,

16-17 urterekin, herriko gazte asanbladan sartu berritan, herrian falta genuen gaztetxea bertan egitearekin amesten genuela gogoratzen dut. Hor jarraitzen du sasiak janda, basati beltzean.

Tira, eszena kitsch samarra, zer egingo zaio. Baina ba ote nahikoa amu konparaziorako. Zeren eta Gasteiztik Aramaia autoan irteten garen bakoitzean, Betoñun (irten bakarrik, sartu Gamarratik egiten baikara, halakoxeak gara gu), ezkerretara begiratu, eta beste eraikin huts bat ikusten baitugu, zeina ez dagoen sasiak janda, basati beltzean, erdi jausita. Eta zeinak bere hormetan “jasan” zuen 18 milioi euroko inbertsio puska bat,

aurpegia garbitu, erraiak birmoldatu eta kultura eta sormen proiektu txatxi bat egiteko. Eta, noski, ikusten dudanean, gizarajoa ni, ez zait bertan gaztetxeak egiteko gogoia sartzen (nahiz eta muino gainekoak eta Errekaleor inguruak agian eskertuko luketen ahizpa autogestionatu eta bizi-bizi bat, hor, extrarradioan), bere ardura dutenen aurrean protesta egiteko gogoia baizik.

Beste batek ere egin zuten bere garaian protesta koloretsu bat, eta orain gure banketxe pribatizatu dohatsuaren pantomima judizial bat jasan behar izan du.

Handia baita KREA: ausart zaitez esaten

siriarr errefuxiatuei hor dagoela, hutsik, nork betekoa zain. Handia bezain itxia: ez uztarren, inguruko belardiak zapaltzen ere ez dute uzten, hesiak (beti hesiak) jarrita. “Edozertan gastatzeko beste diru dugu” garaiaaren argizarizko museoko elementu bat gehiago. Ez ahal da momifikatuko. Jendea hasi da mugitzen, Siberiar KREAZko zirkulu itxia irekitzeko. Aupa Gorka Urtaran, baliatu aukera hori.

Parte hartzeko:

erredakzioa@alea.eus
Gehienez, 1.500
karaktere. Egilea, herria
eta telefonoa zehaztu.
ALEAK eskubidea du
gutunak laburtzeko eta
HIRINET.NET atariarekin
elkarbanatzeko.



Koroatze auzoa, barrutik eraldatzeko bidean

Karbono dioxidorik gabeko gunea bilakatzen joateko, hamaika milioi euro jasoko ditu Gasteizek Europatik

ITSASO ESTARRONA @itsasoestarrona
GASTEIZ

Kanporantz hazten jarraitzea sostengaezina bilakatu denean, barrutik sustertzeko ordua iritsi zaio Gasteizi. Hala, auzo berrien aroak auzo zaharren biziberritzeari bide emango dio pixkanaka hirian, eta Koroatze izango da eraldaketa horretako hurrengo pieza. Izan ere, bere hezurdura zaharberritzeko

hamaika milioi euro jasoko ditu Europako Horizon 2020 programaren Smart Cities deialditik, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako proiektuagatik.

Gasteiztarren artean Errota edo Coronacion bezala ezagunagoa, hamaiki mila hiritar bizi diren auzo honek bi ezaugarri demografiko nabarmen ditu: kultur aniztasuna eta adineko pertsonen ugari-

tasuna. Hirian proportzioz atzerritar jatorriko auzokide gehien dituen eremua da, Alde Zaharraren ondok. Zehazki, bizilagunen %16,6a iritsi da estatutik kanpoko beste herrialde batzuetatik, Gasteizko Udalaren azken datuen arabera. Pertsona nagusien kopuruari dagokionez, edadetu gehien dituen bigarren auzoa da, Zaramagaren atzetik; zehazki, 2.600

etxetan dago 65 urtetik gorako pertsonaren bat. Hain zuzen, urtean auzokide gehien hiltzen diren auzoa da (iaz, 162).

Hirigintzaren aldetik, eraikin zaharrak eta energetikoki ez eraginkorrak dira bereizgarrietako bat, bai eta jatorriz kotxeei begira diseinatutako auzo-antolamendua, neurri handi batean. Hori dela eta, eraginkortasun ener-



Zapiehun etxetako fatxadak isolatuko dituzte. | ITSASO ESTARRONA



Auzoa berotzeko, biomasa sistema ezartzea aztertuko dute. | I. ESTARRONA

3

ARDATZ

Etheen energia-eraginkortasuna lortu nahi dute, mugikortasuna hobetu eta teknologia berriak baliatu.

29

MILIOI EURO

Koroatze auzoko eraberritzeak 29 milioi euroko kostua izango du. Horietatik hamaika Europak jarriko ditu.

750

ETXEBIZITZA

Hasieran 1.300 pisutako fatxadak berritu nahi bazituzten ere, azkenean 750 hobetuko dituzte jasotakoarekin.

2022

URTEA

Eraberritze lanak datorren urteko hasieran abiatuko dituzte, eta bost urte t'erdiko iraupena izango dute.

getikoa lortzea da Errota berritzeko plan berriaren gako nagusia.

Fatxadak isolatzeko ordua

Koroatze auzoa karbono dioxidorik gabeko gunea bilakatzen joateko, lau urrats emango dituzte instituzioek. Lehenik eta behin, 750 etxebizitzaren fatxaden estaldurak berriztatuko dituzte, isolamendu termikoa lortzeko eta, modu horretan, etxeak berotzen energia gutxiago gastatzeko. Bigarrenik, biomasa berokuntza sistema ezartzeko aukera aztertuko dute, gaur egungo berogailu gehienak baino jasangarriagoa. Bes-

tetik, mugikortasun iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartuko dituzte ere, oinezkoiei, bizikletan mugitzen direnei eta garraio publikoari erraztasunak jartzeko. Bukatzeko, era-

Berogailu sistema gisa, biomasa erabiltzeko aukera aztertuko dute

Erraztasunak jarriko dizkiete oinezkoiei, bizikletei eta garraio publikoari

ginkortasun energetikoa lortzeko teknologia berriak ezarriko dituzte.

Guztira, 29 milioi euroko aurrekontua dauka eraberritze planak: 15 milioi birgaitze energetikorako; 4,7 berogailu sistemarako; milioi bat mugikortasunerako eta 400.000 euro teknologia berrietarako. Horiez gain, kaleak zaharberritzeko 7,6 milioi euro bideratuko dituzte.

Auzokideek, 85 euro hilean

Fatxadak isolatzea borondatezkoa izango da. Horietarako prest dauden 750 etxebizitzetako bizilagunek, hori bai, gastuen erdia ordaindu beharko dute.

Etxebizitza bakoitzeko kostua 20.200 eurokoa izanik, Europak 5.000 jarriko ditu, Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzak beste 5.000, eta etxeko jabeak beste ia 10.000 euro; hilabeteko kuotetan zatituta, 80-85 euro inguru jarri beharko dituzte hilerro, hamar urtez.

Modu honetan, eremu kalteberen zerrendatik atera nahi dute Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak Errota auzoa. Oraingoz, begi onez ikusi dute proiektua bertako bizilagun elkarteek. Hartara, 2016. urteko hasieran ekingo diote bost urte t'erdiz luzatuko den biziberritze proiektuari.



Mugikortasun iraunkorra errazteko neurriak hartuko dituzte. | I.E.



Teknologia berriak baliatuko dituzte energia hobeto kudeatzeko. | I.E.



Amurrioko Larrabe auzoan otso bat du Alvaro Molero De Liches arabarrak. | AIARALDEA.EUS

ALVARO MOLERO DE LICHES

OTSO BATEN JABEA Ardi artean otsoari zer egin eta zer ez irakasten orduak igaro eta gero, umeein jolasten du orain Alvaro Molero de Liches arabarraren animaliak. **I. MENDIGUREN** AMURRIO

"Ilargi betearekin otsoek ulu egiten dutela ez da mitoa"

Txanogorritxuren ipuinetik zure etxe pareko zelaira ekarri duzu otsoa.

Bai, %97 du otsoetik eta %3 txakurretik. %100 otsoa balitz, ezinezkoa litzake maneiatzea. Arraza berri bat da, esperimentatzen hasi zirenetik 80 urte bakarrik pasa dira. Animalia hauek ezin ditu edonork izan, izaera gogorra dute. Bizitzan behin bakarrik harrotuko zitzaidala esan zidan otso hezitzaileak. Txakur hau ezin da jo, bestela galdu egingo nuke. Sei hilabete zituenean, lepotik hartu eta hankaz gora jarri behar izan nuen, haren amak egingo lukeen bezala.

Zein ezaugarri ditu?

"Lobo" izena du, originala, bai! Zero azpitik 30 gradutan zoriontsua da.

Neguan elurrarekin errekan sartu eta igerian hasten zen. Udan, argaldu eta ahuldu egin zen, beroagatik bi aldiz mareatu ere bai. Horregatik, goizalde edo goizeko lehen orduan atera behar nuen paseatzera. Askok ibili behar den animalia da, ezin da pisu batean bizi. Nerbio asko dute eta esku gogorra behar dute, oso azkarrak dira. Lobo oso noblea da, oso pozik nago harekin. Hori bai, ahal dela 24 orduz egon behar zara berarekin, otsoak taldean ibiltzeko jaio direlako. Lobo hankaz gora jarri eta musu asko ematekoa da, txikitatit ezagutzen naudelako.

Nolatan egin zenuten otsoarekiko hautua?

Alabak eskatuta. Niri betidanik gustatu izan zaizkit

otsoak. Leongo haztegi batetik ekarri nuen, 1.500 euro ordainduta. Hasieran haginka egiten zuen, ezin zitzaion jaten eman. Ordu asko pasa ditut ardi artean eserita otsoari zer egin eta zer ez irakasten.

Nor da arriskutsuagoa, animalia ala jabea?

Jabeak askoz arriskutsuagoak dira. Poliziarekin arazoak izan nituen. Nire oilategian bizi da eta bizilagunek lehen egunean deitu egin zuten zoro batek otso bat ekarri zuelako auzora. Jendea kezkatua zegoen, baina denborarekin demostratu egin dut ez dagoela arriskurik: paseatzera ateratzen dut eta auzoko umeein jolasten du. Oilategian sutondo bat eta burko bat jarri nizkion goxo-goxo egoteko.

Oilategian bizi den lehen otsoa izango da zurea. Nolako da elkarbizitza?

Hezten baldin baduzu, ez dago arazorik. Txakurrak ikustean haiengana joaten da, baina jolastera. Hori bai, haginka egitera hurbiltzen bazaio erasora joko du. Heziketan dago gakoa.

Nolako zainketa eskatzen du halako animalia batek?

Batez ere, garbiketa eta jatea. Menua txandakatu egin behar zaio: egun batean pentsua jaten du, bestean oilasko oso bat. Hurrengo bi egunetan baraurik egoten da, otsoek ez baitute egunero jaten. Hezitzailea, dietista... denetarik izaten irakatsi dit! **Ez duzu ehiztarien beldurrik?** Mendira goazenean aurreratu egiten bazait oso adi ibili behar naiz, jendeak ikustean "otso bat" dagoelako oihu egiten duelako. Nirea dela eta ez duela ezer egiten esaten diet, baina norbaitek mendian ikusi eta tiro egingo ez ote dionaren beldurra dut. Txaleko islatzaile bat jartzea pentsatzen ari naiz.

Ulu egiten al du?

Bai, ez daki zaunka egiten. Saiatu egiten da baina ulua ateratzen zaio. Ilargi bete dagoenean otsoek ulu egiten dutela ez da mitoa, sekulakoa da, ileak puntan jartzen dizkit.

Egia al da ardi eta abereak izutu egiten direla?

Bai, oso urrunetik detektatzen dute. Larrabetik San Rokera paseatzen noanean hara iritsi baino lehenago hasten dira txakur guztiak zaunka. Usainagatik jakiten dute. Ordenantzagatik leku jakinetan utzi ahal dira solte txakurrak. Lobo haiekin jolastera joaten da, barrabilak jaistean pixka bat agresiboago egon zen, baina ez da arazorik egon. Oso animalia ona da.

Arriskuan dauden anfibioentzako urmaelak eraikitzen ari dira Zigoitian

Oketa mendiaren inguruan bederatzi urmael egiteko lanak hasi dituzte asteon; besteak beste, hiru baso-igel mota biziko dira bertan

MIRIAN BITERI

ZIGOITIA

Proiektu berria dute esku artean Zigoitian: desager-tzeko arriskuan dauden hainbat anfibio-espezie berreskuratzeko eta babes-teko urmaelak eraikitzen hasi dira asteon. Gorbeialdeko parke naturalaren barruan dabilta lanean; hain zuzen, Oketa mendia-ren inguruan.

Zuiako Kuadrillako Tokiko Agenda 21eko koordinatzaile Jon Toñak jakinarazi du egurrezko hesi batekin itxita egongo diren sei urmael egingo dituztela. Horrez gain, helburu zientifiko-ikertzailea izango duen urmaelik ere izango da han. Horren bueltan, honakoa azaldu du: "Aranzadi Zientzia Elkarteak aztertu nahi du Gorbeian dauden abereek anfibio batzuen biziraupenean izan dezaketen eragina; urmael horiek ez dute hesirik izango, eta abereek edateko erabili ahal izango dituzte. Bien arteko oreka egokia bilatu nahi da horrela".

"Egoera desagokia"

Horrekin, esan bezala, Mehatxatutako Espezieen EAEko katalogoan jasotzen diren hainbat espezie babestu nahi dituzte; tartean, baso-igel jauzkaria, baso-igel iberiarra eta baso-igel gorria. Agenda 21eko koordinatzaileak esan du lehengo biek "kontserbazio egoera desagokia" dutela, eta hortaz, lehentasuna espezie horien desagerpena ekiditea dela. Gaineratu du proiektu horrekin beste anfibio mota batzuei ere



Desagertzeko zorian dago baso-igel jauzkaria. | A.GOSA

mesede egitea bilatzen dela, hala nola, gailurretako uhandrea edo Schreiber muskerra.

Zigoitiako Udala aspalditik dabil Aranzadirekin elkarlanean Gorbeialdeko anfibioen egoera aztertzen. Azken urteetan, anfibioen inbentario txikia egin dute, egoera, habitat eta biziraupena bermatzeko aukera eta proposamen ezberdinak aztertzen. Horren ondorio da aipatutakoa.

Helburu nagusia espezieen kontserbazio egoera hobetzea bada ere, parke naturaleko bioaniztasuna ere ezagutaraztea nahi dute. Horretarako, asteon hasitako obrak amaitzean, "ibilbide biologikoak" diseinatu dituzte. Horren harira, honakoa nabarmendu du kuadrillako koordinatzaileak: "Inguruetatik pasatzen diren ibilbideak seinaleztatuko dira, bertan aurki daite-

60-70

ZENTIMETRO

Horixe da urmaelek izango duten sakonera; eta 30 metro karratuko zabalera.

"Urmelak egongo diren ingurunean panel informatiboak jarriko dira"

JON TOÑA

AGENDA 21EKO KOORDINATZAILEA

keen bioaniztasuna azaltzen duten panelak kokatuz. Urmelak egongo diren ingurunean ere panel informatiboak jarriko dira, proiektuaren berri emateko". Horrekin lotuta, datorren urteari begira, hainbat ekintza didaktiko antolatzeak asmoa dute.

Aurreikuspenen arabera, eta eguraldiak laguntzen badu, bizpahiru astetan amaituko dituzte urmaelak eraikitze lanak.



Asteartean sartu ziren makinak Oketa mendian, urmaelak eraikitzeko. | JON TOÑA

Junkera eta Dejabu taldea izango dira Harresiko denboraldi berrian

Urriaren 31n ekingo dio ikasturte berriari Aguraingo Harresi aretoak; euskaraz izango dira ikuskizun gehienak

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar

AGURAIN

Iazko denboraldi arrakastatsuaren ondoren, ikasturte berrirako prestatzen hasi dira Aguraingo Harresi antzokian. Urriaren 31n ekingo dio denboraldi berriari, ekaina bitartean, eta, besteak beste, Kepa Junkera eta Dejabu Panpin Laborategiaren lanarekin gozatu ahal izango dute aguraindarrek eta bisitariak. Eskainitako gehienak euskaraz izango dira.

Ados Teatroa taldearen azkeneko lanak, *Zapatila gorridun mutikoak* antzezlanak, emango dio hasiera Aguraingo agertoki nagusiko egitarauari; Garbi Losada eta Javier Asinen esanetara arituko dira Montse Zabalza, Txori Garcia, eta Jon Barbarin aktoreak. Obrak Luis protagonistaren bizitza eramango du Harresira, mutilen gauzak egitea gustuko ez zuen mutilarena hain zuzen.

Azaroaren 14an, 19:30ean hau ere, Vocalia abesbatza helduko da Lautadara. Garai klasikoetatik egunera arte, euskal kantak tartekatuta, erreperitorio oparoa eskainiko du 25 kidez osatutako talde arabarrak.

Dejabu taldea

Dejabu Panpin Laborategiaren txanda izango da hurrengo, azaroaren 21ean, *Arrastoak* lanarekin. Lur protagonistaren istorioa kontatuko dute Harresiko taula gainean Miren Alkala, Urko Redondo, Iñigo Aranbarri eta



Azaroaren 21ean helduko da Dejabu Panpin Laborategiaren *Arrastoak* antzezlan. | ALEA

Ainara Gurrutxaga aktoreek; Lur haurra zela ama desagertu egin zen arrastorik utzi gabe, eta geroztik bakarrik bizi da aita-rekin. Besteak beste, aurtengo Donostia Antzerki Saria jaso du Dejaburen lanak, iaz eskainitako lanean artean.

Urtea amaitu aurretik, beste alde batetik, abenduaren 19an, kontzertua eskainiko du Aguraingo musika bandak. Eta, aste-bete beranduago, abenduaren 26an, Kepa Junkera trikitilariak eta Sorginak taldeak osatutako

Trikitixaren historia txiki bat lana ere izango da taula gainean. Kanta tradizionalekin eta Junkerak berak sortutakoekin, musika munduan daramatzan 35 urteen ibilbidea erakutsi nahi du lan honen bitartez; ikuskizun honetarako sarrerak aurretik izango dira salgai.

Proiektore digitala

Kulturain elkarteko kide Karmele Perezek azaldu moduan, gainera, aurtengo berrikuntzen artean zine proiektore digitala izango da, berriz ere zine-

ma eskaintza egiteko aukera emanez. Eta ikus-entzunezkoen artean, hain zuzen, Logela Multimen-diaren *Barbantxo* haur-errentzako antzerki multimedia eskainiko dute abenduaren 28an.

Iaz eskaini zituzten ikuskizunen balorazio ona egiten dutela nabarmendu du Perezek, publiko alde-tik erantzun desberdina izan zuten arren: "Gure helburuetako bat zen programazioa egonkortzea eta, alde horretatik, pozik gaude Harresik egin duen bidearekin".



Gaur egun, langileen %90ari behin behineko erregulazio txosten batek eragiten dio. | ALEA

Manifestaziora deitu dute Aernnovako langileen egoera salatzeko

150 behargin kaleratu nahi ditu aeronautika multinazionalak Berantevillako lantegian

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
BERANTEVILLA

Aernnova aeronautika multinazionalako enpresa batzordeak jakinarazi du enpresak Berantevillan duen lantegian 150 behargin kaleratu nahi dituela;

570 lagunek egiten dute lan bertan. Egoera salatzeke, larunbatean, hilaren 26an, manifestazioa deitu dute Gasteizen; 11:30ean, Bilbo plazatik.

Gaur egun, langileen ia %90ari behin behineko

erregulazio txosten batek eragiten dio, abendura arte behintzat izango dutena; honen arabera, hainbat lanegunetan ez dute beharrik egin behar. Lan batzordea prest dago aurrejubilazioak onartzeko, baina

"konpromiso irmoa" eskatu dio enpresari kalera-tzerik izan ez dadin.

Batzordearen arabera, enpresa da bertan lanik ez egotearen "arduradun bakarra". Euren esanetan, hainbat urtez lana munduko beste lantegi batzuetara eraman dute—Brasil, edota Mexikora—, eta, aldiz, ez dute lan berririk ekarri Berantevillara. Euren esanetan, enpresa murriztu nahi dute Berantevillan, eta horrek "arriskuan" jar dezake aeronautikaren sektorea Araban. "Enpresak soilik kalera-tzeez hitz egiten du, baina ez du lan enkargu berriez ezer esaten".



ABENTURA KIROLAK
 ZUBI SALTOA - ROPE JUMP
 ARROILAK - ALPINISMOA
 PIRAGUAK - ESKALADA
 ESPELEOLOGIA - FERRATA BIDEAK
IKASTETXEENTZAKO JARDUERAK
 EGONALDIAK - ESKOLA KIROLA
 UDALEKUAK - MULTIABENTURAK
ALOKAIRUAK - ENPRESAK -
EKITALDIK - IKASTAROAK...

www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com - 635 748 948






Udazkenean murgilduta gaude dagoeneko; perretxikoen sasoia da honakoa. | ALEA

Gehiegizko perretxiko bilketa saihesteko araudia izango du Arraia-Maeztuk

Jendaurrean dago orain ordenantza berria; datorren urterako nahi dute martxan jarri

MIRIAN BITERI

ARRAIA-MAEZTU

Arabako beste hainbat tokitan bezala, Mendialdean ere arazoak dituzte udazkenean. Asko eta asko dira perretxikoak batzeko asmoz, udalerriko inguruetako basoetara joaten direnak; eta arazo bilakatzeko hasi da.

Egoerari buelta eman nahi diote eta Arraia-Maeztun araudia prestatu dute. Udalerrria osatzen duten herrietako administrazio batzarrek dagoeneko hasierako onarpena eman diote mendiko fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua eta honen tasa arautzen duen ordenantzaren berriari. Irailaren 18an, Arabako Lurralde Historikoaren

"Asparrenako araudia hartu dugu oinarri gisa gurea idazterakoan"

ANARTZ GORROTXATEGI
ARRAIA-MAEZTUKO ALKATEA

Aldizkari Ofizialean eman zuten horren berri.

Jendaurrean dago orain hori, interesatuek espedienteak Arraia-Maeztuko udal bulegoetan aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten. Horretarako 30 egun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Inolako erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, ordura arte behin behinekoa zen erabakia

behin betiko onartutzat joko da.

Azken horren bueltan, Arraia-Maeztuko alkate Anartz Gorrotxategik aipatu du datorren urtean jarriko dutela martxan araudia. Horren jatorria ere azaldu du: "Administrazio batzarretatik heldu da kexa, bereziki udazken partean, inguruko basoak jendez betetzen direla; masifikatuta daudela. Autoak nonahi uzteaz gain, mendian ere asko eta asko kontrol barik ibiltzen dira perretxikoak batzen. Egoera horren aurrean araudia prestatzea adostu genuen; Asparrenekoa hartu dugu oinarri gisa Arraia-Maeztuko idazterakoan".

Udalerriko herrietako onura publikoko mendie-

tako perretxiko, fruitu eta bestelako produktuen batzea "modu egokian eta ordenatuan" izan dadila bilatzen dute. Horren harira, Gorrotxategik jakinarazi du kopurua mugatu nahi izan dela bereziki.

Denboraldia, bost euro

Perretxikoak edo bestelakorik batu nahi dutenak Arraia-Maeztuko Udalak emandako baimena beharko dute; udal bulegoetan eskuratuko da hori; dagoen tasa ordainduta. Udalerrian erroldatuta daudenak eta irabazteko xederik gabeko mikologia elkarte eta erakundeek eskatu ahaliko dute. Gainera, bizilagun ez direnei eguneko, asteko edo denboraldiko baimenak eman ahaliko zaizkie. Denboraldi bakoitzagatik bost euro ordaindu beharko dituzte bertakoek; kanpotarrek, berriz, bost euro pertsona eta eguneko.

Egunero batu ahal izango direla ere zehazten da; hori bai, gutxieneko tamaina izan beharko dute, eta bertakoek ezin izango dituzte bost kilogramo gora perretxiko edo fruitu batu. Kanpotarrek hiru kilo.



Gasteizko azokaren bueltan, Axarte eta katedralaren arteko ibilbidearen antzezpena dago. | QUINTAS

Asteburuan atzera egingo dute beste behin Axarten

Gasteizko Santa Maria katedrala eraikitzeke harriaren ibilbidea egiteko aukera izango da

MIRIAN BITERI

AXARTE

Azken urteotako ohitura-ri jarraituz, Trebiñuko Barrendegia ere Gasteizko Erdi Aroko merkatuan izango da presente oraingo astebukaeran. Axarteko harrobitik Santa Maria katedrala eraikitzeke erabilitako harria nola ekartzen zuten irudikatuko

dute beste behin. Izan ere, Santa Maria Katedrala Fundazioak Axarteko harrobia eta hiriburuko erdigunea elkartzen dituen bidea oinez egiteko ibilaldia antolatu du zortzigarren larunbaterako. Katedrala eraikitzeke harria ekartzeko erabiltzen zuten bide berbera zeharkatuko dute bidaia-

riek; hain justu, 14 kilometroko ibilaldia.

5.000 tona

Koldo Martinez geologoak *Harriaren bidean* izeneko liburuan jaso duen moduan, 5.000 tona harri inguru atera ziren Axarteko harrobitik Gasteizera; eraikinaren iparraldeko horma eta ataria eginga

da, zatirik handienez, Trebiñuko harriarekin. 200 urte inguruan idiek tiratutako gurdietan ekarri zuten harria hirira. Martinezek egindako kalkuluen arabera, "460 kilo-ko gurdikadetan eramanda, itzain bakar batek 41 urte eta bi hilabete behar-ko zituen dena eramateko".

Martinezek iritzi- goiz batean garraiatzen zuten Axartetik Gasteizera harria, idien laguntzarekin. Eta hain zuzen, bost bat ordutan egiteko ibilbidea da larunbatean irudikatuko dutena. Trebiñuko Axarte herriko sarreran hasiko da ibilaldia, tenplu gotikorako harria hartzen zuten toki beretik. Egun estalia dago metro erdiko zabalera zuen harrobia; ez da bilatzen erraza.

Pagadien artean

Pagoz betetako basoetatik barrera, Monasteriogunera helduko dira bidaiarik; Mendiolarako bidea hartuko dute jarraian, Gardelegi, Lasarte eta Armentia zeharkatu aurretik. Hiriburuko erdigunea pasa ostean, helmugara iritsiko dira: katedralera.

Azalpen historiko eta paisajistik entzutearekin batera, ibilaldian ipuin kontalari eta geo-mago batez gozatu ahalko dute bidaiariekin.

MUSIKA

Txingokaren musika eskolan izena eman daiteke

M.B.

ARGANTZUN

Uztailean ate irekiak egin ostean, dagoeneko izena eman daiteke Argantzun- go Txingoka kultura elkarteak kudeatzen duen musika eskolan. Ikasturte berriari begira, eskaintza zabala prestatu dute: hiru

urtetik gorakoentzako musika eskolak eskaintzeaz gain, instrumentuak ikasteko aukera ere ematen dute zazpi urtetik gorako neska-mutikoentzako; hain zuzen, tronpeta, trontboia, saxoa eta klarineta jotzen ikasteko eskolak. Helduentzako klaseak ere

emateko prest dago kultura elkarteak, eta baita abesbatza sortzeko ere.

Hil amaierara arte

Interesa dutenek bi bide dituzte izena emateko: txingoka@gmail.com helbide elektronikora mezua bidalita, edo 625 708 524 telefono zenbakira deituta. Txingokako kide Alfredo Angulok azaldu du irailaren amaierara arte eman ahal dela izena, eta

eskolak urriarekin batera hasiko direla.

Trebiñuko konderrian ere
Gaineratu du Argantzunen ez ezik, Trebiñuko konderrian ere eskolak emateko aukera dutela, eta baita Añanako kuadrilla-ko hainbat herrietan ere. Txingokaren asmoa da landa eremuan ere "eus- kara herrira ateratzea"; kasu honetan, musikaren bidez.

Bisoi europarrarentzat habitat egokia berreskuratzeke lanean dihardute

Europako Batzordeko kideak gurean izan dira 'Life Lutreola' proiektua ezagutzeko; Arabako Diputazioak parte hartzen du horretan

MIRIAN BITERI

BASTIDA

Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritzako kideak Arabako Errioxan izan dira egunotan, bisoi europarra (*mustela lutreola*) babesteko eta berreskuratzeke *Life Lutreola* proiektua ezagutzeko. Diputazioak 600.000 eurotik gora bideratzen ditu proiektu horren bueltan egindako ekintzetara; eta horien %70 Europako Batzordeko funtsekin finantzatuta daude.

Hain justu ere, Andaverde edo Gimileo bezala ezaguna den legar hobiaren berreskuratzeari ekingo zaio Ebro ibaia Bastidatik pasatzen den tartean, bertan bisoi europarrerako habitat egokiak bihurtzeko. Aurreikusitako ekintzen artean, ibaiko legar-hobi zahar bat berreskuratzea-



Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritzakoak, bisitan. | QUINTAS

ruko bertako zuhaitzak eta zuhaixkak landatuz eta ibaiaren habitata berriro eskuratuz. Ingurumena babesteko landare pantailak ere jarriko dira, eta, iragazi berdea aintziretan.

300 plataformatik gora

Horrez gain, 300 plataformatik gora jarri dira; horiei esker, 65 bisoi amerikar eta bost bisoi europar harrapatu dira. Ur gaineke egitura dira, oinatz tranpa eta tunelekin, bisoi europarra baino amerikarra erakartzen dutenak.

Esandako ekimenez gain, proiektuak beste hainbat neurri hartzen ditu; tartean, bi espezieren jarraipena egiteko metodoak aztertzea eta zuzenketak diseinatzea errepideetan ibilgailuen fauna harrapatzen duten puntuak ezabatzeko.

Hamar kume berri

Ekintzak ez dira horrekin amaitzen. Proiektuak

aurreikusten du bisoi europarra gatibutasunean hazteko eta *stock* genetikoa hobetzeko lan egingo dutela. Horren bueltan, aurren, gatibu hazi diren 53 ale monitorizatu dira, eta 10 kume ere jaio dira; horietako bi Araban. Ingurumen saileko foru diputatu

Josean Galerak honakoa ohartarazi du: "Bisoi europarra da Europa osoan galtze arrisku handiena duen ugaztuna, espezie inbaditzaile bisoi amerikarraren mehatxuagatik, eta baita bere habitatak eta babeslekuak hondatzen doazelako".

"Europa osoan galtze arrisku handiena duen ugaztuna da"

JOSEAN GALERA

INGURUMEN FORU DIPUTATUA

rena dago, errekarari lotutako ibai aintzirak dituelako. Baldintza ezin hobeak ditu horrek bisoi europarra eta beste fauna espezie interesgarriak bertan bizi ahal izateko.

Aldi berean, lehengoratzte jardueren harira, lurraren profil hidraulikoa berreskuratzea eta hezeguneen birjasotze ekologikoa aurreikusten da, ingu-



Bisoiak harrapatzeke plataforma. | QUINTAS

Ama-ore naturalez egindako ogia, onuraz betetako elikagaia

'Ama-orea' sarritan entzun dugun izena bada ere, gutxiak dakite benetan zer den, jatorria non duen eta zein garrantzia duen etxean egindako ogiarentzat; Artepanen ondo dakizkite orearen sekretuak. ERREDAKZIOA-ARTEPAN

Egiptoarrek deskubritutako izaki biziduna da, gure ogiaren hartzitzaile natural gisa funtzionatzen duena. Ura eta irina nahastu eta egun batzuek jalkitzen uztea baino ez da. Bizirik dagoenez, egunero eman behar diogu jaten (ura eta irina); ekintza horri freskatzeara esaten diogu guk.

Lahasketa simple hau mikroskopioan ikusiko bagenu, mikroorganismo unibertso oso bat deskubrituko genuke, modu sinbiotikoan mugitzen dena. Ama-orean *saccharomyces cerevisiae* **legamiak** (zerealaren oskoretik, hau da, zahitik datozenak) eta **bakteria laktikoak** zein azetikoak elkarreragintzen daude (azken horiek beste mikroorganismo kaltegarri batzuetatik babesten dituzte legamiak). **Ama-orea ogiaren bihotz eta arima da**. Benetan, bera gabe ez litza-teke gaur egun ezagutzen dugun ogia izango.

Lehendabizi, legamiak eta bakteriek hazi ahala ama-orea hartzitu eta eraldatu egiten dute, gure gorputzak asimilatu ahal izan dezan. Hau da, aldeaz **au-**

rretik digestioa egiten dute gure orde. Horrela, nik ogi horren zati bat jaten dudanean, ama-legamiari esker, nire **gorputzak azukre guxtiago hartzen du** (legamia horiekin elikatzen baita) eta nire heste-florak aurretiko digestio hori eskertzen du, ematen dizkidan elikagaiak hobeto xurgatzen dituelako. Ama-orea erabiltzeak eta elaborazio luzeko prozesuek nabarmen **murritzten dute gluten kopurua**.

Bestetik, ama-orearen bakteriek **usaina, testura, iraupen luzeagoa eta azidotasuna** ematen diote ogiari; erabili dugun irinaren arabera eta ama-orea zenbat aldiz eta zein tenperaturatan freskatu dugun arabera. Kontrolatu dezakegun azidotasun puntu bat ematen dio, zapora atsegin, elikagaien zaporaak indartu eta uztartzen dituena.

Artepanen sei ama-ore desberdin lantzen ditugu gaur egun. Egunez egun elikatu, zaindu eta tenperatura egokian mantendu behar ditugu, dituzten onura guztiak lortu eta gure ogietan aplikatzeko.

ARTEPANEN ERABILITAKO AMA-ORE EZBERDINAK

Espelta: Harrian ehotako gari zahararen ama-orea. Gari horretatik irin erdi integrala lortzen dugu eta gure espelta ogia egiteko erabiltzen dugu soilik.

Levain: Frantses erako ama-ore solidoa, esneki-izaera argia duten irin-nahasketekin.

Levain likidoa: Ama-ore krematsua, gure ogiak egiteko gehien erabiltzen duguna.

Gari ekologikoa: Harrian ehotako irin erdi integralezko ama-orea, duela 25 urte baino gehiago gure lantegian sortua. Horrekin irin ogi ekologikoak egiten ditugu.

Zekalea: Zekale ama-orea. Gure lantegiko gazteena da, baina bere jatorria duela 40 urte baino gehiagoko da. Jeffrey Hamelman-ek utzi zigun. Alemaniatic AEBetara joan zen eta handik Artepanera.

Lievito: Indar handiko irinez freskatzen den ama-orea. Panettoneetarako soilik erabiltzen dugu. 40 urtetik gora ditu eta Piergiorgio Giorilli maisuak utzi zigun.

Ama-orearen bakteriek usaina, testura, iraupen luzeagoa eta azidotasuna ematen diote ogiari.

Euskaraz ama-ore naturalari deitzeko hainbat modu daude: Ama-orea, azkarria, behantzia, orantza, orrantza, alxagarria...

ARTEPAN

Jesus Guridi 2.

01004 Vitoria-Gasteiz

945278888

facebook.com/

artepanvitoriagasteiz



Etxeoko ogi gozo baten sekretuetako bat ama-ore naturala erabiltzean datza, sei ama-ore desberdin dituzten Artepanen. ARTEPAN



UXUE DIAZ DE CERIO

ARABAKO BERTSO ESKOLEN ARDURADUNA Uxue Diaz de Cerio du, Arabako Bertsozale Elkartean, lurraldean zehar dauden bertso eskolen ardura; ikasturte berriari begira, ikuspegi orokor bat marraztu du ALEAN. **ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA** GASTEIZ

"Bertso eskolak dira bertsolaritza hedatzeko mekanismorik potenteenak"



Datorren urtean Arabako Kuadrilla arteko txapelketa dela eta, "talde berriak sortzea" espero du Diaz de Cerio. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Zein da zehazki Arabako Bertsozale Elkartearen eskaintza, bertso eskolei dagokienean?

Egun, Araban eskaintza anitz dela esan dezakegu. Arabako eskualde gehienetan dago bertso eskola, eskualde batzuetan berriz, herri ezberdinetan ere bai. Haur, gazte eta heldu taldeak daude, batzuk elkarteak irakasleek gidatuak eta baterano edo gaian adituenak talde autonomo gisara. Gainera, bertso

eskolarik ez dagoen herrietan lauzpabost lagun elkartu, elkartearekin harremanetan jarri eta bertso eskola martxan jar daiteke tokian tokiko baldintzen arabera. Elkarteak beti bertsogintza hedatzeko eta ezagutzera emateko prest dugu.

Zenbat bertso eskola egon dira martxan 2014-2015 ikasturtean? Zeintzuk dira ikasturte berrirako aurreikuspenak?

Azken ikasturte honetan hamaika herri ezberdinetan hogeita zortzi

talde izan ditugu martxan, gehien-
go handi bat elkartetik bideratuak.
Eta ikasturte berri honi dagokienean,
iazko taldeak eta besteren bat ere
aurreikusten ditugu, izan ere 2016an
Arabako Kuadrilla arteko txapelketa
dator eta talde berrien bat ere izatea
espero dugu bat-batean aritzeko ez
bada bertso jarrietan aritzeko.

Zer da bertso eskola bat? Zer lantzen da bertan?

Lehenik eta behin, izenak esaten duen bezala, bertsogintzaz ikasteko eta aritzeko eskola edo gune bat da. Bertsoak idazten, bat-batean kantatzen, gaiak jartzen edota bertso saioak antolatzen ikasten da, besteak beste. Bertsoan egitea da helburu nagusienetako bat. Hitza, errima eta metrikekin jolastea eta jolas horrekin gozatzea, inprobisatuz bakoitzaren ustezko mugetatik haratago eginaz. Azken finean, bertso eskola lagun arteko familia txiki bat bihurtzen da, bertsoak berak adierazteko eta askatzeko ematen duen erraztasunagatik, bertako kideak konfidente eta pasarteen konplize bilakatzen dira.

Zein da bertso eskolek Arabako bertsolaritzaren mapan duten lekua?

Bertso eskolak nukleo direla esan dezakegu, bertso eskolak dira bertsolaritza hedatzen laguntzen duten mekanismorik potenteenak, egituraren motorrak.

Zein da, Arabako Bertsozale Elkartearentzat, bertso eskolak duen garrantzia?

Lehen esan bezala, bertso eskolak nukleoan daude. Egungo bertsolariak bertso eskoletan hezi eta hazitako fruituak dira, beraz haiek gabe, egungo bertso saioetan, ez lirateke arabarrak arituko kantuan, gaiak jartzen, epaitzen, saioak antolatzen,

bertso eskoletan eta hezkuntza arautuan bertsogintza lantzen eta irakasten...

Zer/nolako parte hartzaileak dituzte bertso eskolek Araban, oro har?

Parte hartzailearen profila zehaztea ez da batere erraza adin edo sexuari erreparatuz. Adinari dago-kionean, adin guztietako ikasleak daude eta adin oso ezberdinetan eman diotenak hasiera beren bertsozaletasun eta bertso kantuari. Generoaren ikuspegitik, bertso eskoletan emakumezko nahiz gizonzkoak aritzen dira, gerora ohol-tza gainean ausart ikusten ditugunen gehiengoa gizonzkoa bada ere. Euskaltzale eta bertsozale izatea da partaideak bateratzen dituen, izan ere bertsoa soilik euskara hutsean egin litekeen artea baita.

Zertan lagundu dezake bertso eskola batek bere ingurunean?

Herriko eragile bat gehiago da bertso eskola. Herriak eta bertso eskolako partaideek nahi adina zukua aterako diote honi, bertsolariaren kantatzeko gogoak eta zalearen entzun nahiak. Izan ere, bertso eskolek herrian ematen diren ekintzetan parte hartu izan ohi dute, jai egun garrantzitsuetan, esaterako Gabonetako festetan, Santa Agedan, herriko jaietan... Gainera, sortzaileak

"Azken urtean, hogeita zortzi talde izan ditugu Arabako hamaika herri ezberdinetan"

"Bertso eskola familia txiki bat bihurtzen da, bertsoak askatzeko ematen duen erraztasunagatik"

izaki, azken urteetan gauza ezberdinak ere sortzen joan dira, bertso dantza plazak, bertso rap saioak, bertso pilotak, bertso punka...

Eta euskararen normalizazioan?

Euskararen normalkuntzari dago-kionean, bertsoak euskara hutsean sortzeak partaideen euskara maila sendotu eta handitzen du ezinbestean. Bertso eskoletan hitz egiten den hizkuntza euskara da, eta sortzerako orduan, hitzekin jolas egiterako orduan, nahitaezkoa da erri-matzeko eta ideiak neurrian sartzeko, sinonimoak eta esan nahi dena beste modu batean adierazteko beste hitz eta esamolde batzuk bilatzea.

INTERNETEN: HIRINET.NET



Adin guztietako arabarrek parte hartzen dute bertso eskoletan; irudian, gazteen eskola arteko azken txapalketa. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Hamabost animazio konpainiek girotuko dute aurtengo Gasteizko Erdi Aroko azoka; irudian, aurreko edizio bateko une bat. | GASTEIZKO UDALA

Erdi Aroa dantzan

Hiruehun saltoki baino gehiago bilduko ditu asteburu honetan Gasteizko Erdi Aroko azokak; hamabost animazio eta musika konpainiek girotuta, aurten ikuskizunetarako eremu berria izango du Santa Maria plazan. **HIRINET** GASTEIZ

Azken urteetan bezala, irailaren 25, 26 eta 27an Gasteizko erdiguneak denboran atzera egingo du salto eta Erdi Aroko hiri bilakatuko da. Aurten, gainera, azokak berrikuntza ugari ekarriko ditu, eremuen banaketa, kaleen apainketa, haurrentzako jarduera eta animazio, antzerki eta musika eskaintzari dagokionez.

Guztira, 340 saltoki baino gehiagok parte hartuko dute azokan. Haien artean, 240 saltokik artisau produktak salduko dituzte eta 46tan jantzia izango da eskuragai. Gainera, 22 ostalaritza postu izango dira.

Azoka orain arte antolatzen zuen enpresaren ordean La Fragua de Vulcano arduratuko da, irudikatze historikoetan espezializatuta dagoena. Lehengo aldiz, Santa Maria plaza berritua gehituko zaie Erdi Aroko Azokako espazioei, eta bertan

bi gaueko ikuskizun eskainiko dira: *Esencia*, ostiraleko 22:00etan, eta *La danza de la muerte*, ordu berean larunbatean.

Orobat, txotxongiloak, Erdi Aroko ipuinak, kaleko kontzertuak, eta alegiak eta kondairak izango dira agertoki horretan. Bestalde, taberna eta janari-saltokietarako beste eremu bat jarriko da bertan, Goiuri plazan jarri ohi denaz gain.

Txikienentzat hogeita hamar jarduera baino gehiago antolatu dira Frai Zacarias eraikinaren aurreko espazioan. Horien artean Erdi Aroko baketa da nabarmengarriena. Tramankulu hori zaldunak trebatzeko erabiltzen zen, eta umeek, behar bezala jantzita eta armatuta, berdin egin ahalko dute. Gainera, umeentzako antzezlanak, zaldiko-maldikoa, ipuin eta kondairetan oinarritutako animazioak eta begi-

rale elebidun espezializatuak egongo dira azokan.

Guztira 15 animazio, antzerki eta musika konpainia arduratuko dira kaleak ikuskizun, kalejira, kontzertu eta garaiko pertsonaien dramatizazioz betetzeaz. Bestetik, gaikako lau erakusketa finko jarriko dira: tortura ganbera –Inkiszioak erabilitako osagaiekin–; garaiko armen erakustaldia, borroketan erabiliz; Erdi Aroko kanpamentua –soldaduen borroka eta bizimodua irudikatuz–, eta falkoneria erakusketa eta erakustaldia Aihotz plazan, alor horretan Europan dagoen erakusketa ibiltari onenarekin.

Aurrekoetan bezala, azoka lau merkataritza gunetan banatuko da: azoka kristaua, azoka arabiarra, azoka judutarra eta Erdi Aroko Hiriguneko Merkatarien Federazioaren espazioa.

Azken zozketako irabazlea:

Trebiñu sagardotegian bazkaria:
Amaia Urrutia (Gasteiz).



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Arabako ALEA aurrera ateratzeko zure alea jartzeko prest zaude? Zozketetan parte hartu ahal izateko, bidalguzu ALEA etxean jasotzeko interesa izan dezakeen **lagun baten kontaktua**, eta berarekin harremanetan jarriko gara, harpidetza eskaintzeko, konpromisorik gabe. Eta ez ahaztu! Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun.



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus

jar ezazu zure alea, jaso ezazu zure alea



Antzerkirako bi sarrera

ALEAK **bi pertsonentzako** sarrera bikoitza zozketatuko du, Gasteizko Baratz aretoan euskarazko *Salto* antzezlanak ikusteko, azaroaren 8an (igandea), 19.00etan. Eman izena **urriaren 12a** baino lehen; 16an jakinaraziko dugu irabazlea.



Hala Bedin afaria

Gasteizko Alde Zaharreko Hala Bedi tabernan **bi pertsonentzako afaria** zozketatuko du ALEAK, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Eman ezazu izena **irailaren 29a** baino lehen. Urriaren 2an jakinaraziko dugu irabazlea.



Atxaspin zubi saltoa

Inguru Abenturaren eskutik, hamar urtetik gorako lau pertsonen osatutako talde batentzat zubi saltoa zozketatuko du ALEAK, Ondarroako Atxaspi zubitik. Hogei metroko jauzia, itsasoaren gainean. Eman izena **irailaren 29a** baino lehen. Urriaren 2an jakinaraziko dugu irabazlea.



GASTEIZ

Iera Larrabeiti

"Zein pozgarria den zu berriro etxean bueltan izatea. Aurten bai, aurten lagun artean ospatuko dugu zure egun handia. Zorionak wapisima! Zure kuadrilla".



GASTEIZ

Aitziber Agirre

"Hurrengoan, zorion agurren orrian ez, ALEAko moda atal berrian ikusi nahi zaitugu! Zorionak Aitziber eta musu bat lagunerekin partez".



GASTEIZ

Julia Alonso

"Greziakoak ez, zu bai zarela yogurina bat, urteak aurrera joan arren! Zorionak Kutxiko zure kuadrillarekin partez".



GASTEIZ

Mikel Diaz de Otazu

"Copenhagueko sirenaren pare, hori da gorputza hori! Pixka bat beltzaranago egoteak ere ez lizuke kalterik egingo... Zorionak Terrilas guztion partez!".

Jaso ezazu
zure etxean!



www.alea.eus

HITZ GEZIDUNA

	Uso arra		Gizaseme helduak		Gizon izena	
	* IZENA		Pilota jokalaria		Eguna	
	Adi ezak!					
	Bokala					
* DEITURA		Behartsu, eskale				
Nahastura trinko		Ez eta				
			Edari bizia			
			Adiskide			Moduak
Arrainen azalean					Bokala	
Ugatz					Euskal sindikatua	
			Ahuntzaren ar			
			Zilarraren ikurra			
Detekta-gailu					Musika nota	
Egile atzizkia					Kontso-nantea	
		Burutuak				

* Erdal idazle arabarra

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

L	E	E	G	I	B	A	V	A	K
R	A	D	R	A	V	A	R	L	A
R	E	K	E	A	T	I	T	I	R
E	Z	A	T	A	K	E	R	O	R
O	R	E	N	A	R	O	N	A	R
F	A	R	L	O	T	E	A	K	I
E	S	P	I	D	O	R	G	U	R

SUDOKUA

6	1	7	3	8	5	2	9	4
1	6	5	7	9	3	8	2	4
8	6	5	1	2	9	7	4	3
1	8	3	2	4	5	9	6	7
4	9	6	7	3	1	2	8	5
7	5	2	9	6	8	3	1	4
3	4	9	8	1	7	6	5	2
6	7	8	4	5	2	1	3	9
5	2	1	6	9	3	4	7	8

GOITIBEHERA

A	R	G	A	Z	K	I
G	A	R	A	R	I	
G	A	R	A	I		
G	A	R	I			
A	R	I				
I	R	A	K			
A	R	I	A	K		
A	R	K	A	I	A	
A	I	N	A	R	A	K

SUDOKUA

5							7	8
		8	4				3	
	4	9						
		6		3	1	2		
			9		8			
		3	2	4		9		
						7	4	
	3				6	8		
9	1							6

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Enarak, elaiak. 2. Gasteizko kontzejua.
3. Pluralean, doinu mota. 4. Asiako errepublika.
5. Jardun. 6. Labore mota. 7. Aldi, aro, sasoi.
8. Emakume izena. 9. Erretratu.



ALEA

'Zazpigarren alabaren bila' hitzaldia, Koldo Ullibarri eta Blanca Urgellekin
Gasteiz. Asteartea 29, 18:30ean, Oihanederren.

IRAILAK

25

URRIAK

1

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Esan Ohi Da

Aramaio. Ostirala 25, 19:30ean, Sastiñan.

Joselu Anaiak

Murgia. Ostirala 25, 24:30ean, plazan.

Gaubela

Murgia. Larunbata 26, 20:30ean, plazan.

DANTZA

Hotza taldearen emanaldia

Murgia. Asteartea 30, 19:30ean, plazan.

BERTSOLARITZA

Irati Anda eta Xabi Igoa
Elosu. Larunbata 26, 19:30ean, plazan.

Benito Lertxundi

Laudio. Ostirala 25, 22:00etan, kiroldegian. Zuhaitza liburutegian eros daitezke sarrerak aurretik.



JON URBE

HAURRAK

Arto labirintoa

Ozeta. Euskal Herriko jolasteko labirintorik handiena.
 Informazioa: garaion.eus

'Glu-glup' antzerkia

Gasteiz. Larunbata 26, 12:00etan, Salburuko gizarte etxean. 1-3 urte bitarteko haurrentzat.

'Oskoleko mina', Farres Brothersekin

Gasteiz. Igandea 27, 17:30ean, Salburuko gizarte etxean.

'Elkarrekin desjolasen'

Arespalditza. Igandea 27, 17:00etan, udaletxean. Puskari eta Txurruki pailazoak eta eskulan tailerra.

'Pantxika eta Txinparta' ikuskizuna

Gasteiz. Igandea 27, 17:00etan, Arantzabela ikastolan. GEU elkartearen eskutik.

BESTELAKOAK

Gasteizko Mintzalaguna

Gasteiz. Urriaren 1etik 21era eman daiteke izena. Gasteizko eskalategi eta gizarte etxeetan, hizkuntza eskola ofizialean,



ALEA

'La Almendra', Toti Martinez de Lezea eta Maite Itoizekin
Gasteiz. Igandea 27, 19:00etan,

Salburuko gizarte etxean. Musika, literatura eta historia lagun dituztela, Erdi Aroko eta Errenazimenduko

Gasteizera egingo dute bidaia Toti Martinez de Lezea idazleak eta Maite Itoiz musikariak.

Amaia zentroan eta GEU elkarteak.

Euskal Jaia

Laudio. Larunbata 26, egun guztian zehar. Audioko ekoizleen azoka, bertsolariak, herri bazkaria, alkate aukeraketa, perkusio tailerra, dantza saioa, kontzertua eta beste hainbat ekitaldi izango dira egun guztian zehar.

'Sortegia' ikastaro sorta

Gasteiz. Urriaren 7ra arte eman daiteke izena, Oihanederren. Ahozko kontalaritza, soinu ekipa muntaketa eta erabilera, komiki sorkuntza eta moda saioa.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Los Gandules

Gasteiz. Ostirala 25, 21:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

Taxi!

Gasteiz. Ostirala 25, 19:00etan, Salburuko gizarte etxean. Virginia de la Casarekin.

Hogjaw eta The Ciborgs

Gasteiz. Ostirala 25, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

Iosu Bravo

Gasteiz. Larunbata 26, 19:00etan, Salburuko gizarte etxean.

La Leñera

Laudio. Larunbata 26, 22:00etan, Drumgorri aretoan.

Achtung Babies

Gasteiz. Osteguna 1, 20:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

ANTZERKIA

'Peter Pan', Ananda Dansa taldearekin

Gasteiz. Igandea 27, 18:00etan, Principal antzokian.

'Magic Spectacular', Sun magoarekin

Gasteiz. Larunbata 26, 18:00etan, Salburuko gizarte etxean.

IKUS ENTZUN

'Entropia' pelikula

Gasteiz. Ostirala 25, 20:00etan, Artiumen. Kubako zine independenteari buruzko jardunaldiak.

'Txoriastea' ingurumen zikloa

Gasteiz. Irailaren 28, 29 eta 30ean, 19:30ean, Ataria gunean.

ERAKUSKETAK

'Marrazki mikologikoak'

Gasteiz. Urriaren 18ra arte, Ataria naturaren interpretazio gunean.

BESTELAKOAK

'Gau bat marrualdian' natur ibilbidea

Gasteiz. Ostirala 25, 20:00etan, Ataria gunean. Orein

arren marruak entzuteko ibilaldi gidatua, gaez. Aurretik izena eman behar da naturaren interpretazio gunean.

Erdi Aroko azoka

Gasteiz. Igandera arte, alde zaharrean. Eskulangileen erakustokiak, dantza saioak eta beste hainbat jarduera.

Artzain Eguna

Gasteiz. Igandea 27, 10:00etatik aurrera. Gazta txapelketa, artzain txakurren lehiaketa eta beste hainbat jarduera.

Marmitako lehiaketa

Murgia. Larunbata 26, 13:00etan.

Sagardo Eguna

Aramaio. Igandea 27, 11:30etik aurrera, plazan. Txotx irekiera Txirritolarekin.

Herri lasterketa

Agurain. Igandea 27, 11:00etatik aurrera, San Juan plazatik abiatuta.

oreka i.t.

corporate balance



Zure enpresak behar dituen
zerbitzuak euskaraz jaso
nahi dituzu?

Oreka Information Technologies

facebook.com/orekaIT - twitter.com/OrekaIT_eu - orekait.com/blog

Enpresa Aholkularitza · Kontularitza · Nominak · Fiskalitatea · SAP ERP
Aholkularitza Informatikoa · Business Intelligence · SAP CRM · Web Garapena · SEO
Hosting · E-commerce · Sare sozialak · Diseinu Grafikoa · Prestakuntza

Zumarren hiribidea 1 - Gamarra negozio gunea - D4 Eraikina [243 Bulegoa] 01013 Vitoria - Gasteiz



945 067 219



945 003 987



orekait@orekait.com



zerbitzua
euskaraz